// BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA
BOLETIN OFICIAL DE BIZKAIA

Legezko Gordailua / Depósito Legal BI-1958-1 - ISSN. 1134-8720



## Laburpena / Sumario


| | Orrialdea / Página | |
|---|---|---|
| I. Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa: | 4593 | I. Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia: |
| — Batzar Nagusiak | — | — Juntas Generales |
| — Foru Aldundia: | 4593 | — Diputación Foral: |
| – Xedapen orokorrak | 4593 | – Disposiciones generales |
| – Iragarkiak | 4614 | – Anuncios |
| II. Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Administrazioa | 4624 | II. Administración Local del Territorio Histórico de Bizkaia |
| III. Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Administrazioa | 4641 | III. Administración Autonómica del País Vasco |
| IV. Estatuko Administrazio Orokorra | 4650 | IV. Administración General del Estado |
| V. Justiziako Administrazioa | 4657 | V. Administración de Justicia |
| VI. Bestelako Herri Administrazioak | 4671 | VI. Otras Administraciones Públicas |
| VII. Beste zenbait | — | VII. Varios |


# I. Atala / Sección I

# Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
# Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

## Foru Aldundia / Diputación Foral

### Xedapen orokorrak / Disposiciones generales

### Lehendakaritza Saila

**Martxoaren 3ko 24/1998 FORU DEKRETA, Bizkaiko Lurralde Historikoko kontratarien erregistroa ezarri eta arautu zituen ekainaren 21eko 59/1994 Foru Dekretuaren zenbait artikulu aldaraziko dituena.**

ZIOEN AZALPENA

Foru Aldundiaren kontratu jarduera antolatu behar izanik, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren organo ezberdinekin kontratatuen bat sinatu nahi duten enpresen jarduketak erraztu nahian, kontratarien erregistroa ireki zen, erregistro hori Administrazio Publikoen eta Baterako Administrazio Prozeduraren Araubide Juridikoari buruzko 30/1992 Legean xedatutakoari egokitu eta ekainaren 21eko 59/1994 Foru Dekretuaren bidez ezarri eta araupetu zelarik.

### Departamento de Presidencia

**DECRETO FORAL 24/1998 de 3 de marzo, de modificación de determinados artículos del Decreto Foral número 59/1994 de 21 de junio, sobre establecimiento y regulación del registro de contratistas del Territorio Histórico de Bizkaia.**

EXPOSICION DE MOTIVOS

La necesidad de ordenar la actividad contractual foral, así como de simplificar las actuaciones de las empresas que pretenden contratar con los distintos órganos de la Diputación Foral de Bizkaia, aconsejó la instauración de un Registro de Contratistas, adecuándose el mismo a la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y procediéndose a su establecimiento y regulación mediante Decreto Foral número 59/1994 de 21 de junio.

Hala ere, Administrazio Publikoekiko Kontratuei buruzko maiatzaren 18ko 13/1995 Legea eta, bestetik, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko 13/1995 Legea zati batean aldarazi zuen martxoaren 1eko 390/1996 Errege Dekretua indarrean jarri zirenetik beharrezko gertatzen da ekainaren 21eko 59/1994 Foru Dekretuaren edukia aipatu arauen bidez araupetu diren baldintza eta eskakizunei doitzea. Foru dekretu honen bidez eguneratze eta koordinazio hori bideratu nahi da.

Hori guztiori dela bide, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko foru erakundeen hautapen, antolaketa, araubide eta jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauarekin bat etorriz, Foru Aldundiak 1998ko martxoaren 3ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, dekretu honen bidez hauxe

XEDATU DUT:

*Lehena.*—Bizkaiko Lurralde Historikoko kontratarien erregistroa ezarri eta araupetzeari buruzko ekainaren 21eko 59/1994 Foru Dekretuaren 7, 12 eta 20. artikuluak aldatzeko dekretua onestea.

*Bigarrena.*—Dekretu hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadin xedatzea.

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO KONTRATARIEN ERREGISTROA EZARRI ETA ARAUPETZEARI BURUZKO BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUAREN ZENBAIT ARTIKULU ALDARAZIKO DITUEN FORU DEKRETUA**

**1. artikulua**

Bizkaiko Lurralde Historikoko kontratarien erregistroa ezarri eta araupetzeari buruzko ekainaren 21eko 59/1994 Foru Dekretua aldarazi egin da eta idazketa hau eman zaio:

«*7. artikulua.*—Bizkaiko Lurralde Historikoko administrazio organoekin obra, zerbitzu publikoen kudeaketa, hornidura, aholkularitza eta laguntza, zerbitzu eta Administrazioarenak ohizkoak ez diren lan zehatz eta jakinekoak nahiz administrazio izaerako bestelako kontratuak egiteko gai diren kontratariek egin ahal izango dute erregistroan izena sartzeko eskabidea.»

**2. artikulua**

12. artikuluari beste idazketa bat emango zaio, honako hau:

«*12. artikulua.*—Izena emateko eskabidea aurkezten duten kontratariek agiri hauek batu beharko dizkiote eskabideari:

A) *Legezkoak:*

1. Berez dagokion erregistro publikoan behar bezala jasota dagoen eraketa eskritura edo, banako enpresarioa bada, NANa.
2. Sozietatearen enpresarioaren ordezkaritza eskuesten dion ahalduntze-eskritura.
3. Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen 20. artikuluan xedatutakoaren arabera Administrazioarekin kontratuak egiteko ezintasun edo bateraezintasunik bat ere ez duela adierazi eta eta horretaz beren beregi erantzule egiten delako kontratistaren adierazpena. Artikulu horretako f) atala zati batean Nazioko kideen eta Gobernu Orokorraren Administrazioko goi-karguen bateraezintasunei buruzko maiatzaren 11ko 12/1995 Legearen e) atalaren bidez aldatua izan zen.

B) *Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta edukitzeari buruzkoak:*

1. Ekonomi Jardueren gaineko Zergarako alta emanda duelako egiaztagiria, zerga horren menpeko jarduerak burutzen dituztenean, eta, hala denean, izena emana duen jarduera epigrafeetako azken ordainagiriaren frogagiria.

Sin embargo, la entrada en vigor de la Ley 13/1995, de 18 de mayo de Contratos de las Administraciones Públicas, así como del Real Decreto 390/1996, de 1 de marzo, de desarrollo parcial de la Ley 13/1995 de Contratos de las Administraciones Públicas; hacen necesario que se realice un ajuste del contenido del Decreto Foral número 59/1994 de 21 de junio a las exigencias y condiciones que han venido a regularse por la citada normativa, actualización y coordinación que se pretende mediante el presente Decreto Foral.

Por todo ello y de conformidad con la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre elección, organización, régimen y funcionamiento de las Instituciones del Territorio Histórico de Bizkaia, previa deliberación y aprobación por la Diputación Foral, en reunión celebrada el 3 de marzo de 1998, por el presente Decreto

DISPONGO:

*Primero.*—Aprobar el Decreto de modificación de los artículos 7, 12 y 20 del Decreto Foral número 59/1994 de 21 de junio, sobre establecimiento y regulación del registro de contratistas del Territorio Histórico de Bizkaia cuyo texto se adjunta a continuación.

*Segundo.*—Disponer su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

**DECRETO FORAL DE MODIFICACION DE DETERMINADOS ARTICULOS DEL DECRETO FORAL DE LA DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA SOBRE ESTABLECIMIENTO Y REGULACION DEL REGISTRO DE CONTRATISTAS DEL TERRITORIO HISTORICO DE BIZKAIA.**

**Artículo 1**

Se procede a la modificación del artículo 7 del Decreto Foral número 59/1994 de 21 de junio, sobre establecimiento y regulación del registro de contratistas del Territorio Histórico de Bizkaia, de acuerdo con la siguiente redacción:

«*Artículo 7.*—Podrán solicitar la inscripción en el Registro los contratistas que se encuentren en disposición de celebrar con los distintos órganos administrativos del Territorio Histórico de Bizkaia, contratos de obras, de gestión de servicios públicos, de suministros, de consultoría y asistencia, de servicios y de los trabajos específicos y concretos no habituales de la Administración, así como cualesquiera otros de naturaleza administrativa.»

**Artículo 2**

Al artículo 12 se le dará la redacción que se señala a continuación:

«*Artículo 12.*—Aquellos contratistas que opten por su inscripción deberán adjuntar a la solicitud la siguiente documentación:

A) *Relativa a aspectos legales:*

1. Escritura de constitución debidamente inscrita en los Registros Públicos correspondientes o D.N.I. , en el caso de empresarios individuales.
2. Escritura de apoderamiento por la que se atribuye la representación del empresario social.
3. Declaración expresa responsable de no hallarse incurso el contratista en causa alguna de incapacidad o incompatibilidad para contratar con la Administración, conforme a lo previsto en el artículo 20 de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, modificado en su apartado e) por la Ley 12/1995 de 11 de mayo de Incompatibilidades de los Miembros de la Nación y de los Altos Cargos de la Administración General del Estado.

B) *Relativas al cumplimiento de las obligaciones tributarias y de seguridad social:*

1. Acreditación del alta en el Impuesto de Actividades Económicas cuando ejerzan actividades sujetas a dicho impuesto, y en su caso, justificante del pago del último recibo en los epígrafes de actividad en los que figura inscrito.

2. Foru Ogasunak/ek edo Zerga Administrazioko Estatuko Agentziak luzatutako ziurtagiria, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko maiatzaren 18ko 13/1995 Legearen bidez zati batean garatu zuen martxoaren 1eko 390/1996 Errege Dekretuaren 9.2. artikuluan xedatutako izaera positiboa egiaztatzen duena; edo/eta toki erakundeak luzatutako ziurtagiria, toki erakunde horren menpeko zergei buruzkoa, arauzko testu bereko 7.1 e) artikuluan xedatutako eran.
3. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak luzatutako ziurtagiria, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko maiatzaren 18ko 13/1995 Legearen bidez zati batean garatu zuen martxoaren 1eko 390/1996 Errege Dekretuaren 9.2. artikuluan xedatutako izaera positiboa egiaztatzen duena.
4. Zergei buruzko eta gizarte betebeharren betekizunari buruzko agiri horiek ez dute eraginkortasunik izango erregistroko inskripzioko ziurtagiriaren indarraldiaren azken hilabeteko bigarren hamabostaldian aurreko lerroaldeetan aipatu inguruabarrak egiaztatzen dituen agiri berririk ez bada aurkezten erregistroan.
5. Aurreko puntuan aipatu agirien berriztapenak luzatutako erregistro izen-emateei buruzko ziurtagirien indarraldia erabakiko dute, beraz, epea ez berriztatuz gero, haiek berez, besterik gabe, iraungi egingo dira.

C) *Enpresaren ahalbideari buruzkoak:*

Administrazio Kontrataziokorako Batza Aholkulariak edo Administrazio Kontrataziokorako Batza Aholkulariak, berez dagokiona, luzatutako kontratistaren sailkapenari buruzko ziurtagiria.»

**3. artikulua**

20. artikuluari beste idazketa bat emango zaio, honako hau:

*«20. artikulua.*—Erregistroko teknikari arduradunak luzatutako ziurtagirien indarraldia Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko martxoaren 1eko 390/1996 Errege Dekretuaren 10. artikuluko 3. atalean xedatutako indarraldiekin bat etorriko da, indarraldi bera izango dute, eta indarraldi hori luzatu ahal izango da azken hilabeteko bigarren hamabostaldian zehar agiriak berriztatu badira, 12. artikuluko B atalean xedatutako eran egiaztatuko dena.»

XEDAPEN IRAGANKORRA

Foru dekretu honetan bildutako aldarazpenak ez du indarrik izango 1998ko martxoaren 31ko mugaeguneko dataz luzatutako ziurtagirietan, data horrez geroko berrikuntzak foru dekretu honetan jasotako idazketaren arabera egingo dira eta.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Lehendakaritzako foru diputatua,
JOSE LUIS BILBAO EGUREN

Ahaldun nagusia,
JOSU BERGARA ETXEBARRÍA

I-402)

•

2. Certificación expedida por la/s Hacienda/s Foral/es y/o, en su caso, por la Agencia Estatal de la Administración Tributaria, acreditativa del carácter positivo señalado en el artículo 9.2 del Real Decreto 390/1996 de 1 de marzo de desarrollo parcial de la Ley 13/1995 de 18 de mayo de Contratos de las Administraciones Públicas; y/o por la Entidad Local correspondiente respecto de sus tributos en los términos establecidos en el artículo 7.1 e) del mismo texto reglamentario.
3. Certificación expedida por la Tesorería General de la Seguridad Social, acreditativa del carácter positivo señalado en el artículo 9.2 del Real Decreto 390/1996 de 1 de marzo de desarrollo parcial de la Ley 13/1995 de 18 de mayo de Contratos de las Administraciones Públicas.
4. Esta documentación de carácter tributario y de cumplimiento de obligaciones sociales, no mantendrá su eficacia, si en la segunda quincena del último mes de vigencia del certificado de inscripción registral no se presentasen ante el Registro, nuevas documentaciones que acrediten las circunstancias mencionadas en los párrafos anteriores.
5. La renovación de documentación a la que se hace referencia en el punto anterior determinará el período de vigencia de las certificaciones de inscripción registral que se emitan, de forma que la no renovación en plazo supondrá su automática caducidad.

C) *Relativa a la capacidad empresarial:*

Certificado de clasificación del contratista, expedido por la Junta Consultiva de Contratación Administrativa o, en su caso, de la Junta Asesora de Contratación Administrativa de Euskadi.»

**Artículo 3**

Se dará nueva redacción al artículo 20, tal y como queda redactado:

*«Artículo 20.*—Las certificaciones emitidas por el Técnico Responsable del Registro, tendrán una validez que coincidirá con los plazos de vigencia previstos en el artículo 10.3 del Real Decreto 390/1996 de 1 de marzo de desarrollo parcial de la Ley 13/1995 de 18 de mayo de Contratos de las Administraciones Públicas, prorrogable, siempre que se haya procedido a cumplimentar durante la segunda quincena del último mes la renovación de documentación, que se acreditará en la forma prevista en el artículo 12 apartado B.»

DISPOSICION TRANSITORIA

La modificación contenida en el presente Decreto no afecta a la vigencia de las certificaciones emitidas con vencimiento el 31 de marzo de 1998, fecha a partir de la cual las renovaciones se realizarán conforme a la redacción contenida en el presente Decreto.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día inmediatamente posterior a su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

El Diputado Foral de Presidencia,
JOSE LUIS BILBAO EGUREN

El Diputado General,
JOSU BERGARA ETXEBARRÍA

I-402)

•